

Aurkezpena

Lehen aldia da, 78 urtetan, *Príncipe de Viana* aldizkariak Nafarroako ekonomiarako, kulturarako eta gizarterako berebiziko garrantzia duen gai bati heltzen diola, eta, horretarako, ale monografiko bat prestatu du. Gaia hau da: kultur eta sormen industriak eta eskaintzen dituzten garapenerako aukerak. Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak, gaia sustatzeak eta kudeatzeak dituen onurez konbentziturak, bere agendan lehentasuna eman die arlo hori sustatzeko jarduketari. Are gehiago, Nafarroako Gobernuak berak sormen industriak eta industria digitalak sartu ditu Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren (S3) barnean –automobil-industriaren, nekazaritzako elikagaien industriaren edo osasunaren sektorearen alboan–, garapen produktiborako, lehiakortasunerako eta enplegurako lehentasunezko ildo estrategiko gisa, bai eta gizartearen kohesiorako, kultur aniztasuna sustatzeko, ezaupideen zirkulaziorako eta baloreak sortzeko lagungarri delako ere.

Kulturak gure giza harremanak lotzen ditu, kode eta balore irmoen bidez babesten gaitu, elkar konektatzen gaitu, eta banako gisa zein taldean haztera eramaten gaitu. Sormena, artea, inspirazioa, sentsibiltatea, identitatea, ezagutza, tradizioa eta berrikuntza da kultura. Horregatik, gaur egun, oraindik ere, kontraesankor gerta dakiguke, *a priori*, industria kulturarekin lotzea, hots, kulturari eta sorkuntzari garapen ekonomikorako aukerak ematea, merkaturatzearen kudeaketaren bidez, bai eta kanpo sustapenaren, territorialismoaren, marka-irudiaren edo itun publiko-pribatuen bidez ere. Horretaz gainera, horri guztiari teknologia berriek dakartzaten erronka eta aukerak gehitu behar zaizkio, inoiz ez bezalako loraldia eta hedatzea izaten ari baitira.

Europar Batasunaren Kultur eta Sormen Industrieri buruzko Liburu Berdeak horien barnean sartzen ditu arte eszenikoak, ikusizko arteak, kultur ondarea, zinema, telebista, irratia, musika, liburuak edo prentsa, bai eta berrikuntzarekin eta sormenarekin lotura estuagoa duten kultur sektoreak ere, hala nola moda, arkitektura, publizitatea, komunikabide berriak, bideojokoak eta arte elkarreragileak.

Ekimen berriei leku egitea eta egun dauden baina beren osotasunean garatzeko aukerarik izan ez duten kultur sektoreak sendotzea da gure inguruneko lurralde gehien xedea, eta Nafarroarena, bereziki, kulturaren presentzia eta harekiko jakin-nahia handia eta askotarikoa izan baita bertan.

Hori dela eta, kulturaren gizarte eta hiri balioa aintzat hartuta betiere, kulturaren munduan kokatzen den lurralde batek beste esparrutara –ekonomikoa barne– zabalteko erraztasun handiagoa duela ulertu behar da.

Príncipe de Viana aldizkariaren ale honetan jasotzen da industrietatik eta berrikuntzatik abiatuta kulturari eman nahi zaion bulkada berria, eta hainbat esparru publikotako eta pribatutako aditu eta eragileen analisi eta gogoetak biltzen dira, gure erkidegoko kultur kudeaketan erronka eta aukeren aro berria argitzen dutenak.

«Kultur eta sormen industriak XXI. mendean: esparru kontzeptual bat» izenburupean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Ataleko buru M.^a Camino Barcenillak azpimarra jartzen du kultur eta sormen industriak espezializazio adimentsuaren estrategietan sartzean eta hori kultur arloan eskumena duten administrazio publikoentzat azken urteotan hartzen ari den garrantzian.

Europar Batasunak, 2020 Estrategian, aitortzen du kultur eta sormen industrien funtsezko zeregina betetzen dutela Europar Batasunaren eta bertako herritarren hazkundera, berrikuntza, lehiakortasun eta etorkizunerako, eta gomendatzen du kultur eta sormen industrien indartzea eta beren izaera sortzailea handitzea, Europaren etorkizuneko garapenaren esparru gisa. Alabaina, industria horiek joan den mendean «Ilustrazioaren dialektika» liburuan definitu zirenetik, ez dute beti izan egungo ikuspegia. Interesgarria da kultur eta sormen industriak kultur politikekin, araudi-esparruarekin, eta haren bilakaera kontzeptualarekin alderatzea, hura aukera-nitxo gisa ulertu ahal izateko.

Kultura, Kirol eta Aisialdiko Azpiegituren Nafarroako sozietate publikoko zuzendari Javier Lacunzak, eta Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Araubide Juridikoaren Ataleko buru Juan Carlos Orenesek kultur industrien inguruneko zerga-arintzei buruzko gogoeta egin dute, zeinek bere jardun-eremutik. «Ikus-entzunezkoen ekoizpena eta haren zeharkako sustapen-eredua Nafarroan» izeneko artikuluan, lehendabiziko egileak Foru Komunitateko ikus-entzunezkoen ekoizpenaren status quoari buruz hitz egiten du. Horretarako, ibilbide historikoa egiten du eta beste herrialde batzuen errealitatea aztertzen du ekoizpen-sektore horretarako pizgarri fiskaleko eskemen arabera. Bigarren egileak, aldiz, ekarpena kultur sektorerara ere zabaltzen du, mezenasgoaren kultura sustatuz. «Kultur industriak eta mezenasgoa: haien erregulazioa Nafarroako Foru Komunitatean» izeneko epigrafean, Orenesek adierazten du kultur eta sormen industrien funtzio sozial eta ekonomiko garrantzitsua betetzen dutela eta, ondorioz, komeni dela herritarrek zeregin aktiboagoa izatea jarduera horiek sustatzean. Bada, 8/2014 Foru Legeak behar horri erantzuten dio, hain zuzen ere, hots, komeni dela tresna berriak ezartzea gizarte zibilak kulturaren finantzaketan parte-hartzen laguntzeko. Estatuak gai horren gainean onetsitako lehendabiziko legea da. Artikuluak aurrekariak, xedea, aplikazio eremua eta legearen edukia aztertzen ditu eta arreta berezia jartzen die mezenasgoaren mota desberdinei eta ezartzen dituen pizgarri fiskal garrantzitsuei.

CEINen koordinatzaile Pilar Irigoien da «Sormen sektorea eta sektore digitala, ekin-tzailetzarako esparru estrategikoa» artikulua egilea eta, hartan, sormen sektorearen

eta sektore digitalaren esparruko ekintzailletza aztertzen du. Sormen industriak eta industria digitalak Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) jasotzen diren sektore giltzarrietako batzuk dira. Hortaz, gure lurraldearen ekonomia bultzatzeko gaitasun handia izateagatik azpimarra merezi duen sektoreetako bat da eta, ondorioz, interes berezia duena ekintzailletza-prozesuek oinarri gisa har dezaten. CEINEk eta Iruñeko Udalak gauzatutako «Iruña, ekintzaile» programak sektorean ekimen ekintzaile berriak sustatzera zuzendu da hainbat urtez. CEINEk Foru Komunitatean enpresa berriak sortzen laguntzeko eskaintzen dituen gainerako zerbitzuen osagarri da prozesu hori.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterreko kudeatzaile Marga Gutiérrezek «Kluster ereduak, sektoreak garatzeko estrategia gisa. Ikus-entzunezkoen sektorearen kasua» gaiari heldu dio. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterra 2017ko otsailean sortu zenetik, elkarteen ereduaren hazkundera Nafarroako ikus-entzunezkoen industriako baliokatearen inguruan esponenziala izan da, filmaketetarako pizgarri fiskalak sustatua. Aurrerapen handiak gertatu dira, besteak beste, lurraldeko enpresen eta profesionalen lehen mapaketa, mila kontaktu baino gehiago dituen, edo Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterraren Plan Estrategikoa (2018-2020), mahai teknikoetan, elkarrizketetan eta erakundeetan galdetu duena nola aurre egin atomizatua dagoen eta finantzaketa zaila duen industriaren berezko zailtasunei. Kluster ereduak begiratu bat gerora sortu du, sinergia errealean egituratua eta meditatua.

Uharte Zentroko zuzendaritza-taldeak, Oskia Ugartek, Elisa Artetak, Nerea de Diegok eta Betisa San Millánek osatuak, kultur eta sormen industriak aztertzen ditu bere ikuspegitik, hots, denbora, leku eta gorputz jakinetatik. «Nora bideratu kultur eta sormen industriak. Kokatutako gogoeta labur bat» izenburupean, egileek hainbat irakurketa egiten dituzte, gai hau sakonago ezagutzen lagunduko digutenak, gure begirada testuinguruan kokatu, Uharte Zentroan abian jarritako proiektuarekin alderatu eta gai berriak planteatzeko.

Bukatzeko, monografikoan, Nafarroako kultur eta sormen industriak jorratzen dira, zenbait kultur sektoreen ikuspegitik (arkitektura, musika, arte eszenikoak, ondarea eta industria grafikoa), «Sormen eta kultura industriak Nafarroan: hasitako bidea (ikuspegi sektorialak)» epigrafean.

Arkitekturako Biurtekoaren zuzendari José Manuel Pozok eta Nafarroako Kultura Kontseiluko kide Efrén Munárrizek, «Nafarroako arkitekturaren ondarea eta orainaldia» izeneko artikuluan, Nafarroako arkitekturak azken hamarkadetan nazioartean ospe handia lortu duela diote, bertan egindako eraikinengatik, Iruñeko hirigintza eta garapenagatik, alderdi askotan eredugarria baita, eta Nafarroako arkitektoek nazioartean duten izen eta ospe handiagatik; izan ere, behin eta berriz sariak jaso dituzte Espainian eta atzerrian. Eduki arkitektonikoa eta proiektzio soziala dituzten zenbait jarduerak, nazioarteko izaera eta ospe handikoak, eskaintza kultural berezi bat osatzen dute. Artikuluan estrategiak planteatzen dira ondare moderno eta oparo hori aprobetxatzeko, Donejakue bideak dakarren ondare sekularrak osatuta. Xedea da koadro bat osatzea Nafarroako sormen industriaren hazkunderako bideak deskubritzeko.

Musikak kultur eta sormen industrien testuinguruan duen egoerari buruzko gogoe-ta egin dute Musikologiako doktore Marcos Andrés Viergek eta Nafarroako Uniber-tsitate Publikoko irakasle Igor Saenzek. Egileek, «Musikaren sektorea kultur eta sormen industrien testuinguruan» izenburupean azpimarratzen dute musikaren garrantzia aro postdigital berriranzko bilakaeran. Gainera, testuak honekin lotura duten alderdi batzuk erakusten ditu: musikaren ekoizpena eta banaketa, jabetza eskubideak eta kontsumo mu-sikalaren erabilera berriak. Azkenik, alderatu diren Nafarroako eta Estatuko datuetan musikaren sektoreko joera batzuk islatzen dira, bereziki zuzeneko musikarenak.

Bestalde, industria ingeniari eta Filologiako lizentziadun (UHUN) Gustavo Charlesek *Iruñeko bizitza eszenikoa 2016. urtean* azterlana aurkeztu du, Iruñeko arte eszenikoen garapena 2016. urtean antzerki semiotikaren metodologiaren arabera berreraikitze-ko asmoz. Azterlanak gaingiroki aipatzen ditu Iruñeko gune eszenikoak, baita 2016an antzeztu ziren obren zerrenda, egileak, eta eszenatokira eramán zituzten konpainiak ere. Azterlanaren bukaeran egileak antzerki egintzaren soziologia aztertzen du eta Iru-ñeko bizitza eszenikoari buruzko ondorio orokor batzuk ateratzen ditu.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Histori-koaren Zerbitzuko zuzendari Carlos Martínez Álavak «Garapena, berrikuntza eta ba-lioia Nafarroako kultur ondarearen inguruan» izenburuko azterlana egin du. Kultur ondarearen balio sozial eta ekonomikoa gero eta handiagoa da. Prestakuntzaren eta kulturaren ikuspegitik, garapenerako eragile dinamikoa eta berritzailea da. Dena den, ondarea kontserbatu eta hedatzeko, inbertsio handiak egin behar dira, ondasunaren be-harrei buruzko ebaluazioaren arabera izan behar direnak, ez titulartasunaren edo bestelako koiuntura alderdien arabera. Kultur ondarearen gainean egiten diren ekintzek balio-kate bat osatzen dute, pixkanaka gero eta aberatsagoa eta konplexuagoa egiten ari dena. Ekintzak gauzatu ahal izateko egoki gobernatu behar da kultur onda-rea, horren kudeaketa jasangarria bermatuz. Prozesu horren lidergoa eskualdeetako eta Estatuko gobernuei egokitu behar zaie.

Azkenik, AEGRANek (Arte grafikoen elkarte / Klusterren sarea) berebiziko garran-tzia duen honako gai honi heltzen dio: «Industria grafikoa, Nafarroako kultur eta sor-men industrien gako faktorea». Horren bidez, sakon aztertzen da Nafarroako industria grafikoa- ren egungo egoera, izan ere, sektore horrek mende batzuk daramatza Foru Komunitatean eta, egun, eraldaketa handia bizitzen ari da, bai teknologian bai negozio eredu gisa. Artikuluan ibilbidea egiten da sektorearen bilakaera historikoan zehar eta egun dituen ezaugarrietan, ardatz hartuta tamainan, esportazio mailan eta berrikuntza teknologikoan nabarmentzen diren lau enpresa. Berrikuntza egungo eta etorkizuneko apustutzat hartzen du, lurraldearekiko lotura galdu gabe, eta proposatzen du industria honen garapena sustatzea kultur, sormen eta berrikuntzaren ikuspegitik.

Ana Herrera Isasi
Kultura, Kirol eta Gazterriako kontseilaria